

**Resurreccion M. Azkue**

**ORTZURI**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Ortzuri*, R.M. Azkue. Macon, Protat Frères,  
1909-1910

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00354.htm>

# **ORTZURI**

R.M. AZKUE apaizak  
IRU ATALETAN TA EUSKERAZ  
EGINDAKO  
OPERA

Bere adiskide maite  
Urquijo anaiai  
ZUZENDUA

Bilbon 1909-1910

# AGERLAGUNAK

## *Gizonak*

TELES (gaitzizenez) ILLEDER; arrantzalea.

LAITIZ; itxasgizona.

Txili; iragarlea.

ARTZABAL; ugarikaduna.

ZATIKA; ugarikalaguna.

KIZKIRRI; ugarikalaguna.

ARROZPE; Laitizen osaba.

ELIA.

## *Emakumeak*

BASILI, (gaitzizenez) ORTZURI.

KONTZE, (gaitzizenez) MINZORROTZ.

MARI BATI; Arizabalen arreba.

MARI ANDRES; Txiliren emaztea.

LAITIZEN IZEBA.

ELIA.

*Mutikoak*

MAKOLIN.

IÑASIO MARI.

SERENO TXIKI.

PAROLES.

POLI.

ELI BIKOITZA.

# LENENGO ATALA

Mendiriko kaian, Bizkaiko itxasoan.

## LENENGO AGERRALDIA

*(Mendiriko kaia. Izartura ederra.  
Udaberriko goizaldea. Laurak inguru-  
an. Agertoiala jasoeran, Txili ta lau  
ugarikadun ozta-ozta ikusiak izango  
dira agertokian, beren artean Artza-  
bal, argiontzi bana eskuetan dutela.  
Kai-gaiñean, ikusleen aurrez aur,  
barren-barrenean, arrizko kurutze  
andi bat agiri da).*

**ARTZABAL:** Eguraldi onen ederra!

**TXILI:** Hmm! Etzekiat. Ez al dakutsute argi, odeiertzean, ekaitzaren ernamuiñ beltza? eta zororik nai zendukete gaur itsasora irtetzea?

**ELIAN:** Bai guk, berealaxe.

**ARTZABAL:** Txoriak galazia bezelaxe, ekaitz-ernamuiñ ori jatera, latsaize atsegiña poparean degula, belak bete-betea goazen kalara.

**TXILI:** Ez gaur ez batzar audiari ots eta atabakak itz egin gabe. (*Txili kalealdera poliki doa*).

**ELIAN:** Zertara oa, Txili, buru-gogor ori?

**TXILI:** Laster jakingo dezute, tximiztok. (*Aienatzen da*).

**ARTZABAL:** Eguzkiaren guar aurrenak zurituko dizkigu ire ernamuiñ beltz ori. (*Izarretara begira luzaro*).

**TXILI:** (*Kale-artean*). Simon, ator Talaiara. Antonio Mari, ator Talaiara. Pedro Juan, Anton, Txanbolin, Juan Blas, Berdel: zatozte guztiok Talaiara bizkor.

**BATEK:** . Lepozaletu zaigu Txili.

**ARTZABAL:** Zaartzaroan nor eztek lepozale?

**TXILI:** (*Atabaka erakutsiaz*). Ona emen, ona emen buruzpidea ezbaietan ematen digun adiskidea, asabengandikako atabaka.

**ARTZABAL:** Izarrak karkar ari dituk atabaka orri begira. (*Arrast bat irazeki beza*). Galgot-aize gozoa arrasa onen gar ezereztxo au itzalteko indar gabe dator. Gaurko eguraldi

au zart igarteko, ez uen izaki orren bearrik.  
Txapel-zuloka ari gaitezen gu orain, Txili,  
Txili lagun zaarra. Txapel bada...

**ELIAN:** Zer?

**ARTZABAL:** Elurra

**ELIAN:** Jajajajaja. (*Parrez*).

**ARTZABAL:** Zulo bada...

**ELIAN:** Zer?

**ARTZABAL:** Zaldizko beltzak, odei-artean bultza-  
ka, lauroinka, tximizturtika.

**ELIAN:** Jajajajajaja... (*Parrez itotzen*).

**ARTZABAL:** Gizonak, esan: txapel ala zulo.

*(Ugarikadunak, aurrak bezela, josta-  
tu bitez. Artzabalek txapela gora-  
goraka jaurtiki beza ta batzuek  
«Txapel», beste batzuek «Zulo» ta  
batek «Ertz» esango dute. Oro  
daude parrez aldarte oneko).*

**BATEK:** An agiri dituk zaldizko beltzak. Jajajajaja.

**ARTZABAL:** (Besondotik oratuta berama Txili alde  
batera ta beatzez berakuskio orain izar  
batzuek, beste batzuek gero). Eztakuskik



Artzain eta iru Erregeak an, alkarri maiztxo keiñuka, zerbait iragarten? Eztakusk ire ernamuiñ beltza, zaldi-aurpegiaz, Lapur oni begira?

**TXILI:** Irri? Parre?

**TXILI:** Eztek beti ez irri ez parre, orain bezela, egin al izango. Itotzea bada, o ume-burudun bioztsuok, ni enauk itoko.

**ARTZABAL:** Seme bakarra ederra bera, duen iragarleak burutasun artean ekaitz-azi beltza gau izarratuan maiz sortzen du.

**UGARIKADUN ETORRIBERRI BATEK:** (*Txiliri*). Zertara gakaizkik?

**BESTE BATEK:** Izarrak ikustera?

**IRUGARREN BATEK:** Ze berri degu, Txili?

**BESTE BATZUEK:** (*Izarretara begira*). Agur bat, o Artizar eder, gure lagun zintzo kirmen orri. Ik irazekiten diguk gure arraunak lenen sortzen duen aparra.

**TXILI:** (*Atabaka eskuan duela*). Ezker, etxea; eskubi dezute ugarika. Tori goronbilak ta izan zaitezte gizon. (*Bi argiontziren erdian, arrizko kurutzearen beeko aldean utziko du Txilik atabaka; ta ugarikadunak, ogeita lau-*

*rak, sartuko dituzte goronbilak atabakan; ogeita bik ugarikaldean).*

**ARTZABAL:** *(Goronbilak atabakaratutakoan).*

Orain zeinbaitzak ik.

**TXILI:** Begirik ez al dek, odoiertza goibel ikusteko? *(Zeinbaitzen asi bite).* Zazpi... zortzi... amar... amalau... amasei... ogei... ogei milla tximiztarekin. *(Jaurtiki bitza goronbilak).*

**ELIAN:** Itxasora.

**TXILI:** Gizonak: bi ordu barru oro etxera begira egon baietz! Oro bizirik ezetz!

**ARTZABAL:** *(Gogor).* Zakur orrek zer diok?

**ELIAN:** *(Gogor).* Zakur ori, ixillik ago, iñuska ori. Erori lepozale baaiz, guk eztiagu lepozale izan nai. *(Guk eztiagu inoiz izan nai orla lepozale).*

**ORTZURI:** *(Kale-artean).* Illeder.

**TXILI:** Nere semearen deia.

**ORTZURI:** Gora Jaungoikoaren izenean.

**TXILI:** Aur eder maitea! Ez ote degu gaur, Teles, ire azken eguna?

**ARTZABAL:** Gaixo au burutik makal zegok eta utzi bear zioagu.

**BATEK:** (*Odeietara begira*). Zantzu txit txarra antzematen diat nik.

**ARTZABAL:** Nun?

**BATEK:** An.

**ARTZABAL:** Etzegok ezer an.

**GEIENAK:** Goazan kaiera. Koldarrak zantzu txarra beti dakuste. Odei beltzez ikaratzen dan gizonak arraunaren ordezt aitzurra ta mazi-tzat ongarria, garaiz begiz joaz, ar bitza.

**OROK ELIAN:** Goazemak aurrera.

## **BIGARREN AGERRALDIA**

### DEI EGITEKOEN ALDARRIAK KALE-ARTEAN

*(Mendirin kalarako ugarika guztiak dei egiteko emakume bana daukate. Batzarreko ugarikadunak itxasoratea erabaki oi dutenekoxe, asten dira berak aldarrika «Urlia: gora Jaungoikoaren izenean»).*

**MINZORROTZ:** Jose Lorentzo: gora Jaungoikoaren izenean.

**MARI ANDRES:** Martin ipar otzarena: gora Jaungoikoaren izenean.

**MARI BATI:** Simontxo: gora Jaungoikoaren izenean.

**MINZORROTZ:** Antonio Paitarzale.

**MARI ANDRES:** Inaslo Martin.

**MINZORROTZ:** Juan Blas txiki.

**MARI ANDRES:** Gora Jaungoikoaren izenean.

**MARI BATI:** Jose Antonio.

**MARI ANDRES:** Juan Julian.

**MINZORROTZ:** Andres Arriola: gora Jaungoikgaren izenean.

## **IRUGARREN AGERRALDIA**

ILLEDER TA ORTZURI

*(Ortzuri, besapean otar bat duela;  
Teles —Illeder—, zirazko jantziatz).*

**ILLEDER:** Zergalik ezten, Ortzuri, elizondoko usoak bezela egiten: eguzkia esnatu artean, ik ere lo? Zertarako, enetxoa, beti gaur bezin goiz jaiki? Nola, orren laster aaztu al zain, nere maite orri, negu ontako ondezaldi luze aura? Zerren ezten ik dei egitekoen eskuetan uzten neri «Teles, gora» esateko ajola?

**ORTZURI:** Zer dek? ez al nazaguk, Illeder? Eguratsa naiz argia emakumezko balira, nerau bai egurats bai argi egingo nindukek eta ik ez uke nizaz beste egurats ta argirik bat ere.

**ILLEDER:** Nere Ortzuri maite ori!

**ORTZURI:** Nere zintzur onek ots egin al duelarik, nai uke nik beste emakumeri uztea, erorren izena ta Jaunarena aipatuz, erorrekin mintzatzeko aukera?

**ILLEDER:** Aizea baintz, egutaizea intzake: aize biguñ, atze atsegin, aizeska ontsua...

**ORTZURI:** Biguñago dek ta atsegiñago ire mingaiña.

**ILLEDER:** Galtzu mengelik ereintzetan makurtzen eztuen aizea.

**ORTZURI:** Nun ikasi dek izkuntza ori?

**ILLEDER:** Biotzak ez tin maisurik.

**KIZKIRRI:** (*Beste bereiñen artean nasa-gaiñean ugari karontz doala*). Berriketako gogo goitzotik degu, gazteak. Etzerate ikarazten datorren ekaitzaz?

**ORTZURI:** (*Gertuen dan arrantzaleari*). Egia al da ekaitza degula?

**ILLEDER:** Ezta zantzurik.

**BATEK:** Etzekinat.

**ORTZURI:** (*Beste bati*). Esan neri, arren, ekaitzik laster ote degun.

**BESTE ONEK:** Batek bazekin.

**ORTZURI:** (*Illederri*). Ez adi, Teles, gaur orrera joan.

**ILLEDER:** Nola! (*Ezti-ezti*). Noiztik dion itxaso ederrari bildur andi au, Ortzuri, nere maite orrek?

**ORTZURI:** Neri eskaiñia, arotz izatea, noiz, noiz beteko didak, Illeder?

**ILLEDER:** (*Itxasora begira*). Itxas maitea, agur dagikeat ezkondata bereala. (*Arrantzale batzuek nasara igo bitez*).

**ZATIKA:** (*Illederri*). Ator, etorriko baaiz.

**ARTZABAL:** (*Berari*). Baator ala ez ator, berritsu ori?

**KIZKIRRI:** (*Berari*). Ire begira, Teles, luzaro gaudek. Asteko aizela gaur ere aaztu zaik.

**ARTZABAL:** Aita bildurtik bildurtu al au?

**ILLEDER:** Bldurra zer dan eztet gaurrarte antze-man, o gizonak. Lagunak or al dira bilduak?

**IRUBAK:** Emaztegiaz izkide izateko aitzakiak, geldo orrek, nai al dituk? Gizon eder, gizon alper.

**KIZKIRRI:** Otoitz-ordua eldu dek, Teles.

## **LAUGARREN AGERRALDIA**

### ESKARIA

*(Kalarako ugariketan otoitza beti egiten da badiatik irten orduko; ugarika askotan nagusiak esaten du zein santuri; batzuetan lagunak asteka egin oi dute. Eskari onen bitartean ugarikarik ezta agiri. Ager-tokian Txili ta Ortzuri daude. Berok*

ere, arrantzaleak ari diran artean,  
otoitzean).

**ILLEDER:** Zuri, Nikolas zaintzaille orri, goitik gizaldi askotan errukiz adi zauden orri. (*Bere lagunak Aita gurea ta Agur Maria bi elitan eta agopean esan bezate*). Zuri, arrantzale andi orri, ekaitzik gogorrenetan, Pedro, zaintzen gaituzun orri. (*Beste Aita gurea ta Agur Maria bat edo bi*). Zuri, gure Ama samur orri, arren otoitz egin zazu, gure artetik lenen ito bear duenarentzat, o Ama!! eske gagozkitzu.

**ARRANTZALEAK ELIAN:** Agur Maria, doariz betea, Jauna da zurekin, onetsia zera.

**ILLEDER:** Andre guztien artean eta onetsia da zure sabeleko arnaria, Jesus. Maria don-tsua, Jaunaren Ama.

**ARRANTZALEAK ELIAN:** Gu obendun onentzat otoitz egin zazu.

**ILLEDER:** Otoitz egin zazu.

**ARRANTZALEAK ELIAN:** Orain ta batez ere gure eriotzorduan: Arren.



# BOSKARREN AGERRALDIA

ORTZURI, TXILI TA MINZORROTZ.

*(Geroago emakume asko ta arrantzaleak badiatik atzera).*

**ORTZURI:** *(Txiliri).* Antzeman dezu, Txili, gure Telesek arestian nolako biozketa illunez zirauskun lenen itoarentzako otoitz samur aura, o Ama!! *(Negarrez).*

**TXILI:** *(Ezti-eztirik).* O Basili, etzan negarrik egin.

**ORTZURI:** Aitagai maite, iragarle ori egia al da ekaitza datorrela?. *(Txilik, bira emanenez, negar egin beza. Ortzuri, au antzemanenez, estuturik badialdera begira ta deadarrez).* Illeder. *(Bego apurtxo batean erantzumena entzun nairik).* Teles. *(Berriz ere, eskua belarrian duela, adi bego).* Ez adi, arren, gaur kalaratu.

**MINZORROTZ:** *(Illunpetik).* Ez antzu.

**ORTZURI:** *(Laborrian, kalealdera begira).* Nor zera? *(Iñork jaramonik ez. Ortzurik manta-*

*la, soinetik askatuta, erabilli beza ta gora beera argi ondoan).* Nora oakit, nere Illeder. Erruki nazak, maite banauk.

**MINZORROTZ:** *(Illunpetik).* Ez akus gora ta beera Ez aramo.

**ORTZURI:** *(Izu-izurik).* Nor aiz? Gauargiren bat noski?

**MINZORROTZ:** *(Agertokian).* Bai, begira neri; eta i, Basili, gauargi izugarri atzapartsu baten alaba.

**ORTZURI:** Ni, zure alaba? Ni?

**MINZORROTZ:** Zirzil galduak ibilli oi ditun goiznarrean mutillen atzetik. Burua autsiko diñat, Basili, Teles zarpatsu ori utzi ezpadezan. *(Emakume batzuek urreratu bitza).*

**ORTZURI:** Nik Teles utzi? Lenago il.

*(Minzorrotzek, belauniko belaunbilloizen gaiñean jarrita, biragoa jaurtiki beza, besoak zabalik, oskorora begira).*

**MINZORROTZ:** Arren, zeruko Jauna, ugin gaitz batek Teles eraman dezala, gaur berean.

*(Emakumeak garrasiz ta intzirika. Ortzuri mintsuriz erori bedi).*

**MARI ANDRES:** Biragoa! Teles gaixoaren errukarria! *(Badiatik betoz nasara arrantzale batzuek).*

**ARTZABAL:** Zoraturik al zaudete, emakumeak?

**ZATIKA:** Zer ari zerate garraisika?

**EMAKUMEAK:** Biragoa! Teles gaixoaren errukarria!

**ARTZABAL:** Nun da Minzorrotz, biragotxo bat nere gaiñera jautiki dezan? *(Berriz emakumeak intzirika. Teles Ortzuri mintxuridunaren ondoan bego, Gizonak gogor ar bezate Artzabal. Emakumeak, gizonai besondotik tiraka, etxera eraman nairik).*

**EMAKUMEAK:** Gera zaitetze goizeon, gizonak, legorrean, arren.

**ARTZABAL:** Gaur itxasora eztatorrena bein ere nere ugarikan ezta sartuko. *(Arrantzaleak aldarte txarreko bijoaz berriz ugariketara. Illeder Ortzuri esnatu nairik).*

**MARI ANDRES:** Basili, ez al dion agur egin nai ire senargai eder oni?

**ORTZURI:** *(Ixil-mixilka).* Illeder, arren gera adi.

**ILLEDER:** (*Nasertzetik*). Nere Ortzuri, uso ederra: illebeta barru sapelatz orrengandik jaregingo aut.

## **SEIGARREN AGERRALDIA**

### AZKEN-AGURRA

**EMAKUMEAK:** (*Badiara begira*). Zoazte, senar ta seme maiteok, Jaunaren laguntasunez. Oialok, tantai ederretan aize bigunez puzgoturik, zaramazkitela.

**ARRANTZALEAK:** (*Ugariketatik*). Agur, agur, emazte ta ama laztanok.

**ILLEDER:** Agur, Ortzuri nerea.

**ORTZURI:** Agur, Illeder neretxea.

**EMAKUMEAK:** Agur, agur.

**ARRANTZALEAK:** Agur, agur.

**EMAKUMEAK:** Zoazte, senar ta seme maiteok, Jaunaren laguntasunez.

**ILLEDER:** Agur, maitea: nere Aitaren bekosko illuna argitzan, Ortzuri.

**ARRANTZALEAK:** Agur, maiteak.

**EMAKUMEAK:** Oialok tantai ederretan aize bigu-  
nez puzgoturik zaramazkitela.

**ARRANTZALEAK:** Agur, agur, agur.

**EMAKUMEAK:** Agur, agur, agur.

**ILLEDER:** Agur, agur.

**ORTZURI:** Agur, agur.

**ILLEDER:** Agur

**ORTZURI:** Agur.

**OROK ELIAN:** Agur.

*(Ugarikak poliki urrutira doazan  
artean, agertoiala astiro eratsiko  
dute).*

LENENGO ATALAREN ATZENA

# BIGARREN ATALA

*(Mendiriko nasa batean, lenengo atalekoan ez. Barrenaldean mendi bat agiri da. Mendi onen barrenean dago badia. Ikieslen eskubitik dago nasara bidea).*

## LENENGO AGERRALDIA

LAITIZ, BERA BERATARA.

**LAITIZ:** Izarrik izarrena, iparrerri otzetako sumeta guztiak, batera ketan asita, illundu ezin didaten izarra, Basili. Ez Aldebaran, ez Sirio, ez Artizarra begiztatu ezin nituen gau illun beltz aietan, maite, nere eder ori, ikusten indudan; eta ire irudi planta zonan nere itxasbideko argia.

Ordea eguzkiaren goitasuna negurtzerakotan, betaurreko beirakietan agertzen intzaidan, galantik, ta ire argiak ostargia itzali-

rik, eguteragoa galduaz, bertatik aingeruren batez, Mendiriko kai-kalean, ire ta nere burua ikusten nizkan: i saregiñen, zorigiñen ni ari giñala, ta arratsaldean Arizpen itsusoiñua entzuten ta alai krisketan. Oro, bide egiñik, guri begira ta andiesten ari ziran.

Laster Sunderlandgo kale zabaletan arto mamizko arpegidun gizandre aiek, ire txarran-begi, urki-soin eta itxastxori-ibilkera nabaritueran, alkarri galde egingo diete «nor degu nasa betean datorren andre gazte, txairo, lirain, apain, eder, malota ori? — An, urrutitxo agiri dan ontzi lau tantaidun artako buruaren emaztea» eranztzungo du norbaitek.

Geroxeago, nere guraso zaarrengandiko ondasunai, nere izerdiazkoak gaiñeraturik, lurriñontzi ikusgarri bat erosi dezadan aldian, Basili izentzat ezarriaz, itxaso ugarotsu eskerga guztiak igarota, kaitzarrik kaitzar iri andi ta ospetsuenetara burua erakustera bidaliko det, Ludiaren bost

aldeetan zabal izan dadin nere maite orren  
izen eztitsua: Basili.

## **BIGARREN AGERRALDIA**

MAKOLIN, LAITIZ, ORTZURI (IXILLIK) ETA MINZORROTZ.

**MAKOLIN:** (*Laitizi*). Joateko esan du.

**LAITIZ:** Zer dek, txiki?

**MAKOLIN:** Kontzek dio bereala joateko.

**LAITIZ:** Zein Kontzek?

**MAKOLIN:** Kontze Minzorrotzek.

**LAITIZ:** Nora?

**MAKOLIN:** Beraren etxera.

**LAITIZ:** Aitzera lanpernatarako nagoela ta bazkalondoan banoakiola: bizkor ibilli.

**MAKOLIN:** Saritzat zigarrotxo bat ta pizturik (*Laitizek zigarrotxo bat eman bezaio ta arrast bat berazeki*). Milla esker (*Eskuak pozez igortziaz*).

**LAITIZ:** Nai al dek egunero neregianatu...

**MAKOLIN:** Bai, jauna.



**LAITIZ:** Ezkutitz bat eramateko?

**MAKOLIN:** Nori?

**LAITIZ:** Eztakik? Berari. Basiliri.

**MAKOLIN:** Ta egunero bat, e?

**LAITIZ:** Ta pizturik. (*Makolin krisketan bijoa*). Zertarako nai ote nau Minzorrotzek? emaztegaia ikusteko ez ote? bai noski. Aitzak: gorde ongi zuen lapa, lanperna ta karrakailak. Guztiak eztute nere maitearen begirakunetxo baten domurik. Kontze Minzorrotz banoakizu, ez ordea zure musker-begi oiek ikustera. (*Ortzuri, zapia begietan duela, negarrez igaro bei*). Zer den, Basili, negar egiteko? Ire etxerako asmoa ninan. Zer den, zer den? Kontzek garrazkeriaren bat esan al din? (*Ortzuri bijoa*).

**MINZORROTZ:** Garrazkeriak zerorrek bear zinduzke, dei egin ta ere etzatozelako. Aitzean emaztegaiak atxitzen al dituzute?

**LAITIZ:** Ze berri degu, Kontze?

**MINZORROTZ:** Basiliren biotz zailla beratzeko, bitxi bat naiz soiñeko ederren bat erosi bear degula.

**LAITIZ:** Bi bear badira ere, ez atzeratu; erosi len bai len urrezko bitxi eder oiek ta jostunak ar bezaio bere soin liraiñaren negurria ta oiala goien goienekoa izan ditela.

**MINZORROTZ:** Ta au? (*Beatzez dirua ezagutarazi beza*).

**LAITIZ:** (*Laitizek sakeletik katanarrua atera ta aratuaz*). Berealaxe zatoz nere etxera ta izango dezu.

**MINZORROTZ:** Goazen.

**LAITIZ:** Kontze? nola da Basili negarrez egotea?

**MINZORROTZ:** Tzzzzz! emakumeen negarra! jaja-jajaja.

**LAITIZ:** Nola, nik itz egin eta ark ez erantzutea?

**MINZORROTZ:** Emakumeon negarra negarra al da?

**LAITIZ:** Elizan doneak ikusten bezela, ni kalean ikusiak Basili poztu oi zuela!

**MINZORROTZ:** Orrelaxe esan zidan berdantzat.

**LAITIZ:** Nola liteke beraz...?

**MINZORROTZ:** Nola? Zaude pixkat. Oskoroa, izkairik ikusgarriena dalarik gaurik gau, beti al dago giro oneko, izartsu, intz-urtika eta urdin?

**LAITIZ:** Nere ost eder onek, nundikoak ote ditu beronen ostargia illundu dieten odei beltz-beltz malkotsu oiek?

**MINZORROTZ:** Begira, Laitiz. Guk, Amok, etxaldean sua erdi illik, ogeak eragin gabe, erratza nagi zokondoan ikusirikan, beti oi dauzkagu begietan itxasaingiraren soa ta ezpaiñetan itz negar-edaleeak.

**LAITIZ:** Itxasaingirak bezela gaixoari! Banoakio. *(Joan nai du).*

**MINZORROTZ:** Zatozkit onera, buruxko.

**LAITIZ:** Zertara? Naiago det arengana joan.

**MINZORROTZ:** Ezkontzegunerako bosteun dukat agindu bear dizkidazu.

**LAITIZ:** Berdantzat baietz esan nizun.

**MINZORROTZ:** Eta gaiñera zuek nerekin bizi izatea. *(Laitiz isillik).* Zer diozu? *(Ixillik luzarago).* Zer diozun. Zer?

**LAITIZ:** Ta atzerrietara bear bagendu?

**MINZORROTZ:** Ni ene atzerrietara.

**LAITIZ:** Ta Basilik nai ezpalu? *(Mendigaiñean sua).*

**MINZORROTZ:** Senarrak nai baldin badu, zer du gonadunak zer oartu ta jarki?

**LAITIZ:** Begira... ona... bainan... (*Mendian bigarren sua*).

**MINZORROTZ:** Bai ala ez. Ezetza bada, beste batek eramango du elizara nere neskatxa eder au.

**LAITIZ:** Ez, ni bizi naizen artean.

**MINZORROTZ:** Nerau albotiko nuelarik. Esaizu; bai ala ez.

**LAITIZ:** Bai (*Mendian irugarren sua*).

**MINZORROTZ:** Itza, itz?

**LAITIZ:** Itza, itz; Laitiz deritzaidan bezala. (*Minzorrotz bijoa*).

**EMAKUMEAK:** (*Arinka sartuta*). Sua, sua, sua, sua. Minzorrotzen biragoak dakar ekaitz gogor au.

**LAITIZ:** Zer dezute, emakumeak?

**MARI BATI:** Orra Teles gaixoari Minzorrotzek jaurtikiriko biragoa.

**LAITIZ:** Kontzek! Telesi!

**MARI BATI:** Belaun billoizen gaiñean.

**LAITIZ:** (*Minzorrotzi deadarrez*). Kontze, Kontze. (*Kontzeren atzetik bijoa*).

# IRUGARREN AGERRALDIA

EMAKUMEAK, MUTIKOAK ETA GEROAGO TXILI

*(Mutikoak bi lerrotan, burutsik, ager bitez. Aurretik Makoliñek gudoial bat zurrun batean bekar. Letainia oiu eginda bijoaz itxasaldera, geroago berriz agertzeko).*

**MARI ANDRES:** Or dira mutikoak.

**MARI BATI:** Goazen gu ere elizara, salbetara.

**EMAKUMEAK ELIAN:** Goazen.

**AURRAK:** *(Lerro batekoak).*

Erruki gaitzatzu, Jauna.

Erruki gaitzatzu, Kristo.

Erruki gaitzatzu. Jauna.

Kristo, entzun guri.

Kristo, adi egon guri.

**AURRAK:** *(Beste lerrokoak).*

Erruki gaitzatzu, Jauna.

Erruki gaitzatzu, Kristo.

Erruki gaitzatzu, Jauna.

Kristo, entzun guri.

Kristo, adi egon guri.

*Erruki gaitzatzu, Jauna, arren.*

Zeruetako aita Jauna

Seme, Ludiaren Erosle Jauna

Espiritu doatsu Jaungoikoa

*Otoitz egizu guretzat.*

Andre Maria dontsua

Jaunaren sortzaille dontsua

Neskatsen neskatsa dontsua

Kristoren Ama

Jainkozko doiaren Ama

Ama oso garbia

**MUTIKO GUZTIAK:** Otoitz egizu guretzat, otoitz egizu gure Aitentzat (*Bijoaz aurrak*).

**MARI BATI:** (*Elizatik beste emakume batzuekin datorrela*). Baita Idurriko agure bat ere, Minzorrotzek gaur bezela biragoa jaurtiki ta urrengo illuntzean gaztainadar batetik erori ta il zan.

**MARI ANDRES:** Egurengo bei bat beste birago batez, tximiztak jota bezela, garbitu zan.

**EMAKUMEAK ELIAN:** An dator Txili antxintxika. Txili, Txili, Minzorrotzen ekaitza, laster al dator?

**TXILI:** Minzorrotzena ez, nerea baizik; nik odeier-tzean izar-argitan ikusi dedana. (*Mari Bati-ri*). Ire neba txaldan Arizabalek den, Mari Bati, erru guztia. (*Mari Bati negarrez*). Begira dezala Artzaiña ta Iru Erregeak kei-ñuka ote dabilzan. Bizardun aurra! Izarrak karkar zebilzela! Negar ere gaur Mendirin egingo dezute.

**MARI ANDRES:** (*Nasertzetik*). Bi aizoial agiri dira.

**BATEK:** Iru.

**BESTE BATEK:** Lau. (*Txili lasterka bijoa nasertzera. Emakume guztiak bijoaz beraren atzetik. Betaurreko luzeaz so egin beza Txilik*).

**TXILI:** Oro daude etxera begira.

**MARI BATI:** An dator kurutze gorridun aizoiala.

**EMAKUME BATZUEK:** Batzuek Getarialdera doaz.

**TXILI:** (*Inguruan dituen mutikoai*). Ken emendikan, aurrak. Zoazte gizonen billa. Atera elpide-ala. (Urrengo itzok diozkin artean atera bezate Laitizek eta beste gizon batzuek elpide-ala. Bertan sartu ta bijoaz

badiara). Abant oraintxe, Juan Blas, barrena. Geldi, Berdel. Abant, gizonak, gogoz. Artzabal, kemen; ebaki zak ugin gaitz zakar ori. Abant, seme, laztan orrek. Lagunak, aup! Atzena, aup! aup!. Ederki dijoa. (*Emakume batzuek intzirika. Oro intziri ta karraisika, Artzabalen ugarikak tirabira egieran*).

**EMAKUME BATZUEK:** Otoi, jauna, arren-bai-arren, itxasoko Jaun altsu orrek atera itzatzu ugin artetik gure gizonok, aur etorrigabeongatik.

**TXILI:** (*Estu ta larri*). Laitiz, Laitiz.

**MARI BATI:** (*Mutikoai*). Otoitz, aur maiteak.

**MUTIKOAK:** (*Belauniko*). Guk eztegu indarrik aski...

**EMAKUMEAK:** Laitizek elpidea eramango du.

**MUTIKOAK:** Aitok ugin artetik atera al izateko. Gure aingeru onak bijoaz gaixo orrengana...

**EMAKUMEAK:** Gu errudunok, ezpagantzuzkizu...

**MUTIKOAK:** ...ta baretu bezate itxaso apartsua; Arren, Jauna...



**EMAKUMEAK:** ...O Jesus, aurzale zaitugun orrek, errugabe diran aur zuk emanok entzun itzatzu. arren, biozberaz.

**MUTIKOAK:** ...ta gaurgero gu ere onak izango gera. (*Ortzuri Minzorrotzen eskutik burua jaregin-eziñik*).

**ORTZURI:** Utzi neri.

**MINZORROTZEK:** Bai, joadi ta atera zan ire lleder ori. Ja jai!

**MAKOLIN:** Bi dakartzki Laitizek.

**SERENO TXILI:** Itorik.

**MAKOLIN:** Itorik ez. (*Laitizek Artzabal beso artean tarrastaka bekar ta nasa gaiñean utzi beza; gero bekar Teles ta au ere luze-luze utziko du. Artzabal erdizka jaiki bedi ta, Mari Batik eta bi mutikok lagunduta, astiro bijoa. Laitizek Telesen bularrean belarria duela*).

**LAITIZ:** Biotza geldi du.

**TXILI:** Artzabal. (*Txapela ortz-artean duela negarez bego. Ortzuri illeai tiraka*).

**ORTZURI:** (*Urduri-urduri*). Ken, ken, balbe zakarra; ori eztek irea. (*Telesen ondoan auzpez, beronen esku ta masailak igozten*).

**MARI BATI:** (*Txiliri*). Beste bi gorpu ondartzan. (*Emakume ta mutiko, oro, ondartzara bijo-az. Telesen oiñak besarkaturik, arrizkoa bezela, bego bere ama Mari Andres. Txili, beti txapela ortz artean duela. Laitiz, soñe-koetatik ura dariola, burusik illari begira. Ortzuri, Telesen esku ta masaillak igortzita, jaiki bedi ta poz-pozik esan beza*):

**ORTZURI:** (*Zoraturik*). Ori! Jajajajaja. Ori dala Teles, ori Jajajajaja! Teles arrizkoa al da, Txiliren seme, neretxoa? (*Itxasoari begira*). Aup, aaaup! Euskaldun emakume gaixoen malkoz bizi aizen alarguntzaille, errai-gogor, itxasotzar gaizkin ori! Nun dek ik, balerik ere, nere Illeder bezain arrain eder galantik? Or abil gero, aparra darikala, nere espa andiz. Emaidak orain-bai-orain nere gordailu domutsu ori, nerea det-eta. Aaup, aaaup!

**MARI BATI:** Txili gaixoa: beste lau illotz ere an dituk. (*Itxastxoriak egaz bebilz*).

**BATEK:** (*Txiliri*). Beste lau geiago.

**MARI BATI:** Zer diok, Txili?

**TXILI:** (*Bakarrik izketan bezela*). Seme bat izan, ta ito!! Alabatxo bat izateko, ta berau zoratu!! (*Oskorora begira*). Jauna, orren gaitkiña nauzu? (*Gizon batzuek baiartak eskuan dituela igaro bitez agertokian ondartzarontz. Lau betoz, baiarta ta guzti, Telesen illotz billa. Txili bijoa semearen ondorik, burutsik. Mari Andres, kordegabe bezela, agertokian auzpez gera bedi. Ortzuri itxastxoriai begira*).

**MAKOLIN:** (*Mari Andresi, besondotik oratuaz*). Teles badaramate.

**MARI ANDRES:** Nora? O seme berdingabea!. (*Biok bijoaz*).

**ORTZURI:** (*Itxastxoriai ogia nasatik jaurtikiaz*). Itxastxori gosetuak: nere maite laztana ere gose det oraingo. Tori ogia eta zoazte kalara ta esan begira nadukala. Aizegabe badaude, zoazte oro ta egazka aizea gelditzaka eman Artzabalen ontzitzoari. Kurutze gorri bat du aize-oialean eta barrenean mutil eder bat, Ludian batekoa. Zoazte, ekaitz-iragarleak.

**APAIZA:** (*Ikusten eztirala*). Miserere mei Deus.

**ORTZURI:** Nor il zait neri?

**APAIZA:** Secundum magnam misericordiam tuam.

**ORTZURI:** Nor il zaigu? (*Elizaldera begira*). Txilin, gezurrik mingaiñean eztezuten txilin ozenak: esan neri, arren, gizon ala emakumea dan il dana. (*Batera ta bestera bebil urdu-ri*).

**APAIZA:** Et secundum multitudinem miseratio-num tuarum dele iniquitatem meam.

**ORTZURI:** (*Kale-artean sartuaz*). Illeder, gora Jaungoikoaren izenean.

(AGERTOIALA ASTIRO BEERA).

BIGARREN ATALAREN ATZENA

# IRUGARREN ATALA

*(Mendiriko peka baten gaiñean zelaitxo bat. Zelai onetan baseliza bat, aurretik bost armailladun elizpea duena. Peka-ertzean arresi kabelduna. Goizeko zortzirak dira, udazkeneko egun batean; lenengo bi atalak baiño sei bat illebete geroago).*

## LENENGO AGERRALDIA

ARROZPE, TXULI TA ARTZABAL

**ARROZPE:** Zein aldetan gertatu zan zorigaitz negargarri aura?

**TXILI:** Arako nasamutur aurre-aurrean.

**ARROZPE:** Nolatan galdu ziran gaixoak? Aitzak joagatik ala ugiñen indartzarrez tirabiraka ondoratuaz?

**TXILI:** Semea iretsi zidan ugiña eliza onen aldean andia zan. Ontzi gerekatxoa atzean jota

luma bezela ereki zuen. «Ederki dijoa» esan nuen nik ta batera ugintzarraren bizkar labanean beera ta beerago ondoratu ziran. (*Negarrez*).

**ARTZABAL:** Zortzi gizonetatik sei ugiñak ondartzara ok egin zituen ta beste biok zure illoba kementsuak atera giñuzen: il baiezik ni, Teles gaixoa illotzik.

**ARROZPE:** Itxasgizonak kemenik ezpadu, beste nork izan dezake?

**TXILI:** Laitiz aberatxa ta ni txiroa izan bearrean, bestera bagiña, egun alantxe semetzat poz-pozik artu izango nuen.

**ARROZPE:** Basili alabatu dezunezkero, semetzat ar zazu gaur nere illoba. Zein gurasok ditu aur ain ederrak?

**TXILI:** Ederki esana, baiñan eziña eziñ.

**ARTZABAL:** Ezkontzordua eldu da.

**ARROZPE:** Zorionean (*Etxerontz bijoaz*).

# BIGARREN AGERRALDIA

## MARI BATI TA ARTZABAL

**MARI BATI:** Manuel!

**ARTZABAL:** Ze atsegin?

**MARI BATI:** Onera puzka batean.

**ARTZABAL:** (*Lagunai*). Laster naiz, gizonak.

**MARI BATI:** Ederki egin zenduten Basili errukarria  
Minzorrotzen etxetik ateratzeaz.

**ARTZABAL:** Onetarako geratu naun, arreba?

**MARI BATI:** (*Itza atzeratuaz*). Ixo! Egon bein. Ixo!  
Beste zerbait ere adi zak. Baltzuko arrantzale orori ots egin bearra aiz, Manuel.

**ARTZABAL:** (*Irriz*). Bai, Mari Batiri, buruko neurria  
artuta, lotarako txano gorri bategiteko.  
Baltzua bildu! Ja jai!

**MARI BATI:** Zergatik ez? Norbait jaregin bear  
dezute gaur zoro batengandik, gaixoa!!

**ARTZABAL:** Berriketak ditun oiek.

**MARI BATI:** Basili zoro garbi dago...

**ARTZABAL:** Bera ala erori?

**MARI BATI:** ...eta iñola ezin ezkondu liteke.

**ARTZABAL:** Eztiñat berriketako gogorik.

**MARI BATI:** Zertarako i egin aute Mendiriko itxasendore, txatxu ori? Artzabal zuzena i aiz, ala besteren bat?

**ARTZABAL:** Mintza, baiña labur.

**MARI BATI:** Sei illebeta aunditan Basili baserrian izan dute, aur minkor bat bezela, naikeri artean, Laitizen emanaren emanaz. An ziran, beraren jostagaillutzat, ama-loka ta txitoak, Mendiritiko usotxoak, antxume bat ere bai, Txuri izenduna, begi ederduna bera, mintzatzan bezela ari dana.

**ARTZABAL:** I ere, berritsutzar ori, aukera bau, injoake; ta antxume ta arkume otzanak pozik artuko ituke: naiz txuri naiz beltz, bei llegei, llaru, naiz golli, arrexka ta ñabar.

**MARI BATI:** Iñoso, txoriburu.

**ARTZABAL:** Txaldankeri gazkabe oiek Baltzuan esango banitu...

**MARI BATI:** Txaldana nor dan esan.

**ARTZABAL:** ...i ta biok buruarintzat orok artuko ginduzken (*Au esanan bijoia*).

**MARI BATI:** (*Geldiaraziz*). Nora? Entzun neri, bes-telan teillak ere jakingo dute Laitizen ezku-rak (*beatzez dirua ezagutaraziz*). Txiliren



gizabidea ta Artzabalen zuzentasuna beragandu dituela.

**ARTZABAL:** Erosi ni, Mari Bati? Ez gero neri irakin-arazi.

**MARI BATI:** Entzun, bada, neri. Laitizek debekatua zeukan iñoiz Basili gaixoari maitetasunik aipatzea, ta ezkondu!! Bein, Teles zanak oi zuen bezela, Laitizek «Ortzuri» esan zion eta ba al dakik Basilik Laitizi zer erantzun zion?

**ARTZABAL:** Aurkeri onezaz zer nai den?

**MARI BATI:** «Ez neri esan *Ortzuri*, izenda nazazute *Ortzori*, nere ortz auek aspaldiko ameskaitz beltzetan zuritasuna galdua dute. Illeder datorrenean, berriz Ortzurituko natzaio». Au esan zuen bein ta berriz neskatxak, eta ezkondu!!

**ARTZABAL:** Aurkeriak!

**MARI BATI:** Basilik Teles oraindik bizirik dagoela uste dik. Onela erakutsi egin ziotek ik emandako gurasotzakoak. Zergatik, bart ere, etzietek Laitizi senargai-iztxo gozoak esaten lagatu? Basili zoro garbi zeagok.

**ARTZABAL:** Ezkongaiak ezkontzaurrean oro egoten ditun, arre-baso, zororik. Bestelan nor ezkondu? Jajajaja!

**MARI BATI:** Mutilzaar gazkabe auen txaldanak! Eztegu, Manuel, arazo au irrigarria. Laitiz Basiliren eskutik atera bear dek, maitetsu orrek.

**ARTZABAL:** Ire alabatxoarentzat izateko?

**MARI BATI:** Ire zuzen-entzutea gaitzizentxo bat baizik eztek, neba irrizale.

**ARTZABAL:** Mari Bati: nik Laitizi bizia zorpean zionat ta ezin dezakeanat eragozpenik iñolaz ezarri.

**MARI BATI:** Eta ez au ikaratzen etorkizunak? Urte gutxi barru, kuiak bezela, or sartu ta emen irten, gaixoak!! zoroxxak iri onetan, gure Mendirin, ibilliko dituk Laitizkumeak!! Ta nori eskerrak? irian aspaldion degun itxasendoreari, Artzabal zuzenari.

**ARTZABAL:** Nik, Mari Bati, esan diñat esatekoa.

**MARI BATI:** Ta nori abil on egiten? Or zebillek bera, Mari Andres, arrokeriak aunditua, baserrietako oitura purtzillak irian arrerazten: gatza, lineaia ta purtzikeriak. Seme ito

gaixoaren damu andi biotzekorik ote du berorrek?

**ARTZABAL:** *(Belarriak itxiaz).* Ken akit, utikan! mingain-luze, ken, ken. Gora Laitiz ta gora Ortzuri. Orok gogaidez gaur diokegu «gora».

## **IRUGARREN AGERRALDIA**

*(Kale-artean atabalotxa ta onen ondoren dultzaiñasoiñua entzungo dira. Lastertxo, atabalari bat eta bi dultzaiñari aurretik dituztela, iri-erdia betor baselizarontz: mutikoneskatza, garaierdiko gizon ta emakume, atso-agure, berein arrantzale ta legortar, langille-mordoska bat, ikusnaiez. Atzetik Arrozepe ta Txili, Laitiz erdian dutela. Atzeraxeago, bi errenkadatan, Artzabal aurretiko ta zuzentzaille dutela, ogei neskatxa eskuetan lorustaiak dituztela, biren artean bat. Onen erdian beste lau*

*neskatxa, opaldunak, agiri dira: lenengoak ontzitxo batean gatza darama; bigarrenak, beste ontzi batean, ondarra; irugarrenak, lineaia; laugarrenak, buruntzi bat. Opaldunon atzean Ortzuri, Mari Andres ta Arrozperen emazteak lagundurik. Orkesta ta atabalari-dultzaiñariak ezpitez ixildu, laguntze guzti au elizpe aurrera eldu arte. Orduan Ortzuri mailladi-burura igo ta zutik jarri bite aditzailleai buruz).*

**OPARIDUNAK (LENENGO ELIA):** *(Ortzurirengana aurreratu ta txandaka lau opariak eskiñi bitzaiozkate. Lenengoak gatzontzia eskura ematen dion artean, laurak oju egin bezate). Artzan, Ortzuri, gatz au; sukaldean oiki elikaturak ontzeko au.*

**LORUSTAIDUNAK (BIGARREN ELIA):** *(Ortzuriri).* Aingeru zorizaiñak bere ego txuri-txuriak etxe gaiñean eda bizkin, izan adin beti zorionekoa.

**LENENGO ELIA:** (*Bigarrenak Ortzuriren eskuan ondarrontzia utzi beza*). Artzan, Ortzuri, ondar au; etxeko zoko ta tresnak arduraz garbitzeko au.

**BIGARREN ELIA:** Aingeru zorizaiñak... eta abar.

**LENENGO ELIA:** (*Irugarrenak linaia Ortzuriren eskubiturren gaiñean utzi beza*). Artzan, Ortzuri, linau au, soroko liño samurrak irradan iruteko au.

**BIGARREN ELIA:** Aingeru zorizaiñak... eta abar.

**LENENGO ELIA:** (*Laugarrenak Ortzuri buruntzitu bera*). Artzan, Ortzuri, buruntzi au, senar ta aurrentzako txera beti adirazteko au.

**ORTZURI:** (*Eskuetan gatz-ta ondarrontzia, besoetan linai-ardatzak eta lokietan buruntzia dituela, gora begira*). Aaup, aaup! O zein astiro igo aizen, eguzki nagi ori, nere ameskaitz beltz oiek aienatzera! Nola, orren guartsu eta alai aizelarik, nola egiten dituk egun ain illun, beltz, goibel, ezo ta ozmiñak. Ongi etorria izan adi, oskoroapaingarri eder ori, peka onen gaiñean odei ez mugarik gabeko nere zorion au ikustera.

**ARTZABAL:** Gere Ortzuri maite orren aldean zein apaingarri zaigu ederra? Munduren mundu birau zori onek. (*Lorustaidunak armailletan, biñaka, egaletan zutik jarri bitez, lorustaiz amar mako —zubi— eratzeko keran*).

**BIGARREN ELIA:** Ator, Ortzuri, ator lorezko makopetik zorionaren seaskara eta maiterik goiko onespenari zabal zaion biotza. (Laguntze guztia sar bite baselizan, dulztzaiñak eta orkesta joka ari dirala).

## **LAUGARREN AGERRALDIA**

**MUTIKOAK JOSTATZEN, GEROAGO MINZORROTZ**

*(Guztiak elizan sartu ta lastertxo, Artzabalek atera bitza mutikoak bultzaka ta ostikoka. Mutikoak, nolanaiko ukabil-zemaiak eta naiez-ziñuak eginta gero, etzin bitez, Makolin beren jauntxoa erdian dutela, belar-*

*di gaiñean. Makolin zigarro bat erazekiten ari da).*

**PAROLES:** Txapel-arrutzika ni.

**OROK:** *(Makoliñi adi ta agozabalka bezela).* Ez, ez. Utikan!

**MAKOLIN:** Ukabilla bezelako marrubi gorriak Amezmendiko an, goiko aldetxoan, zeudek eta zakurrik bat ere ez. Goazen gaur arratsean.

**OROK:** Gaur ez. Laitizen eztei bitartean soiñu ederra joko ditek eta naski guk ere zertxobait, Laitizen eskuetatik, ona dek-eta, izango diagu.

**PAROLES:** Txapel-arrutzika ni.

**OROK:** Eztiagula nai.

**MAKOLIN:** *(Zutitu, nagiak atera ta arrosin eginda-koan).* Txapel-arrutzika ni.

**SERENO TXILI:** I ta nerau gaituk bi.

**MAKOLIN:** Nere txapel onen ingurura azken dato-rrena biz azpi.

**IÑASIO MARI:** Banabil.

**PAROLES:** Ni ere bai.

**POLI:** Ni ere bai.

**BATZUEK:** Ni ere bai.

**BESTE BATZUEK:** Ni ere bai.

**OROK:** Ni ere bai. Egotzak, tira! noranai buruko txapel zaar ori: naiz aurrera, naiz atzera; ezker, eskuiñ: urriñ, alde; gora, beera; normal.

**MAKOLIN:** *(Txikienai).* Zuek, txikiok, ikasi *(Poli ta lagun asko ut egiñaz aienatzen dira).*

**SERENO TXILI:** Ni enauk iñoiz izango, aizak Makolin, azkenputz.

**PAROLES:** Ni ere ez, enauk izango.

**MAKOLIN:** *(Txapela jaurtikiteko siñuak egin bitza. Gero jaurtiki ta bere billa bijoa. Txapel ondora eldueran dio).* Ni nauk lena.

**IÑASIO MARI:** Bigarrena ni.

**SERENO TXILI:** Irugarren ni eldu nauk.

**PAROLES:** Ez aiz.

**SERENO TXILI:** Banauk.

**PAROLES:** Ez.

**SERENO TXILI:** Bai.

**PAROLES:** Ez.

**SERENO TXILI:** Bai.

**PAROLES:** Berriketa gutsi.



**SERENO TXILI:** *Joko aut gero. (Alkarri oratu ta burruka, alkarjoka ere bai. Parolesek azpiratu beza Sereno Txiki).*

**PAROLES:** *Esan txil (Sereno Txikik goratzeko lear egin bitza). Esan txil.*

**SERENO TXILI:** *Txil (Berezi bitez. Sereno Txiki amurruzko negarretan bego).*

**OROK:** *Atzo bezela. gaur ere berdin: Sereno Txiki degu azkenputz.*

**SERENO TXILI:** *(Parolesi ixilmixilka).* Bakarrik gaudenean, ikusiko dek.

**PAROLES:** *(Parrez).* Bakarrik gaudenean! Jajajaja!

**SERENO TXILI:** *Paroles, okalatero, kankarro-zaar.*

**PAROLES:** *Sereno, txartes koipedun, kerten andi.*

**SERENO TXILI:** *Biburdiñan trikitin trikitrikitrikitrii.*

**PAROLES:** *Las dose y media y nublao. (Oro parrez).*

**SERENO TXILI:** *Paroles, okalata.*

**PAROLES:** *Sereno, Kerten andi.*

**SERENO TXILI ta PAROLES:** *Berriketa gutxi. Joko aut gero. Jo. Jo.*

*(Berriz ere alkarri eldu ta burruka).*

**MAKOLIN:** (*Burrukariak berezitakoan*). Sereno Txiki: azpi. Zuek, txikiok, oi. (*Sereno Txiki makurtu bite*).

**TXIKIENAK ELIAN:** Utzak txapela, Makolin. Orrela, txalo! (*Txaloka*). Utzak ik ere, Iñasio Mari. Ik, Paroles, utzak irea. Ori! Txalo! (*Txaloka*). Artzak ik orain, Paroles, beste orrei ikutu gabe, poliki. (*Zapartariak, txapela artu nai utzi, oiularien esanera, egin bezate. Paroles, bere txapela Azpiaren bizkarretik artzea zaiña bailitzan, siñuka ari dalarik, azpiak lendenduaz bio*).

**SERENO TXILI:** Arroputz, abil arin.

**PAROLES:** Alde, alde guztiok. (*Txua eskuetara egotziaz*). Buru ori makurrago. (*Zapart egi-ten du ta txapelak beera*).

**SERENO TXILI:** (*Lerdenduta*). Paroles: azpi, azpi.

**GUZTIAK:** Azpi, azpi.

(*Alde egin zuten mutikoak bi erres-  
kadan betoz, aurretik atabalari ta  
dultzaiñariak, atzetik, Ortzuri bezela,  
Poli*).

**ATABALARIAK:** Trapata tra, trapatra tra, trapata trapata trapata tra... eta abar.

**DULTZAIÑARIAK:** Tirili tirili tirili tri, larala la, larala laaaaa... eta abar.

**OIALARIAK:** Utzak berriz, Makolin. Utzak ik ere, Iñasio Mari. Ik, Sereno, utzak irea. (*zapartariak lenago bezela, zer entzun, a egin*).

**MAKOLIN:** (Mailladi-burura igo ta Poliri bultz egiñaz). Orain Ortzurika ni, nerau Ortzuri naukala.

**POLI:** I onetan ez abil.

**MAKOLIN:** Alde. (*Parolesi ta*). Zuek: eman neri opagaiak; ta orain oi.

**POLI:** Ortzurika gu asi gaituk-eta. Aitari gaur esango zijoat ta ark emango dik.

**POLIREN ALDEKOAK:** (*Muxinka*). Gu ezkabiltz.

**LENENGO ELIA:** (*Parolesek, Serenok eta Iñ. Marik Makoliñi*). Artzan, Ortzuri, gatz au ta beste eskutxu orretan artzan, Ortzuri, ondar au.

**BIGARREN ELIA:** (*Poliren aldekoak*). Jajajajaja! ezittek orrela neskatxak oi egiten.

**MAKOLIN:** Orain linea ta gero buruntzia.

**LENENGO ELIA:** Artzan, Ortzuri linai au eta artzan buruntzi au ta biok gorde itzan ongi. (*Poliren aldekoak ito-bearrik parrez*). Ik orain, Ortzuri.

**MAKOLIN:** (*Ezkuetan, batean lurra, bestean karea; besoen gainean adar lodi bat eta buruan ostozko buruntzi-antzeko zerbait dituela ta gora begira*) Aaup, aaup! (*Zintzurra garbi beza*). Eguzkiak udan majo berotzen dik (*Parre Poliren aldekoak*) ta ezin diat gau illun beltzez deusik ikusi (*Parre berriz ere*); ongi etorria, amona gorria. (*Parrez itotzen besteak*) lalara lala, lalara lala (*Txistuka Politarrak*) talara laaaaaa laralara.

**OROK:** (*Igesi Makoliñi*). Biragolaria dator. (*Makoliñek ere opagaiak jaurtiki ta iges begi*).

**MINZORROTZEK:** (*Antxintxika sarturik*). Aurrak nun dira Laitiz ta aiek? (*Zerraila-begitik so egin apur baten ta izurik bezela igesi bijoa*).

# BOSKARREN AGERRALDIA

IRUGARRENEKO AGERLAGUNAK; MUTIKOAK EZ  
GEROXEAGORARTE

*(Irten bitez ezkonberriak eta lagunak  
elizatxotik).*

**NESKATXA GUZTIAK:** Ortzuri: zorionaren ezaugarritzat tori pitxi-loretxo auek; berok bezela ire zorion au ezpite, ordea, tximelkorra izan. *(Ortzuri oso gogamentsu bego ixillik).*

**LAITIZ:** *(Ortzuriri).* Emazte maite, eztiotsen iztxo bat ere? *(Neskatxai).* Nere emazte ta nere izenean esker gozoak biotzez dizkizutet.

**NESKATXAK:** Atsegin andi degu ezkonberrien lagun izanez eta murko-loretxoz inguratuz kale lorerik ederren au *(Mutikoak banan betoz).*

**LAITIZ:** *(Gizonai).* Biotz andiko lankide maite itxas-garailari oientzat eskerrak.

**GIZONAK:** Mendiritar gazteen erakusmen aizen Laitiz kementsu orri omena.

**LAITIZ:** (*Mutikoai*). Eskerren ordez, uriko txori politenok, tori. (*Zigarrotxoak jaurtiki bitza lurrera, mutikoak lurreratu bitez billa. Batzuek piztu bitzate*).

**ARROZPE:** Neronek ere, Mendiritar masak, eskerak zor dizkizutet. Begien aurreko ikuskitun eder onek ametsen batekoa dirudi. Soiñu eder ta eztizko gozamenetan Mendiriguztia emen bildurik, nere illoba eder maite onen zoriontasuna ugaltzen! Zoazte, beraz, kai gaiñera bazkaritara, gizonak; ta emakumeak Baltzu-etxera. Aurrentzat ezpata dantza ondoan zelai onetan gertuko degu askari andi bat.

**OROK:** (*Gogo beroz*). Ezkerrak biotz biotzetikan.

**ARTZABAL:** Ezkontzeresi zaarrak ots egin beza ororen belarrietan.

**OROK:** Urra!

**GIZONAK:** «Mendixka aiztsu bi zeuden eliza txiki-txo baten ezker-eskubi...».

**EMAKUMEAK:** «Gau ta egun Txiliñari adi alkarri mintzatzeko».

**GIZONAK:** «Txiliña illeta-soiñu motela joten ari oizan egunetan...».

**EMAKUMEAK:** »Bi mendiskak leiaz ari oi ziran motel motelik illeta joten».

**GIZONAK ta EMAKUMEAK:** *Dindilindin, dandalan,* ta an ziran beltzez jantzirik berein negarrez.

**GIZONAK:** Ezteialdielan berriz goitzotik argiezkilak poztuta...

**EMAKUMEAK:** Alairik uju-ajaja oiuz igaro oi zuten eguna.

**GIZONAK:** Elizatik ezkonberriak apain ateratzen ziran ordu berean.

**EMAKUMEAK:** Bi mendixkak leiaz ari oi ziran txerazko dobera joten.

**GIZONAK ta EMAKUMEAK:** Nere maitestxoa, aingeru-artetik jetxiriko gordailua.

**ARTZABAL:** Eliz-itzalpeko bi mendixka, Jaunak alkarrentzat sorluriko oiek, zein bikuntza darazaguten ba al dakizute?

**OROK:** Laitiz ta Ortzuri.

**ORTZURI:** Ene senar, maite, zein argi asten zaigun bizi berria! Gaur bezain par ederrik eztet ametsez ere ikusi. Zillarrez jantzi oi dan eguzkia gaur urrezkotu zaigula dirudi.

**LAITIZ:** Ene emazte maite, Mendiriko lore arantze gabea, masailletan iñoiz tximeldu ez oi

diran arrosaduna, nere biotz zoritsu onen jabe ta erregiña.

**EMAKUMEAK:** Ezkontzeresi zar orrek beti alaitu oi digu biotza. Elizondoko mendixka oiutsu izateko gogotan nor ez ta?

**GIZONAK:** Zein bikuntza ederra gaur dakustan! Nun ditu beste irik bi senar-emazte iaiua-gorik?

**ARTZABAL:** Gora Laitiz, gora Ortzuri.

**OROK:** Gora, gora. (*Artzabalek jarri bitza dultzai-ñariak eta atabalaria ororen aurrean iri aldera begira; eta bere esanera asi bitez joten eta kalera joaten*).

## **SEIGARREN AGERRALDIA**

ORTZURI, LAITIZ, MARI ANDRES,  
ARROZPEREN EMAZTEA TA NESKA-  
TXA LAGUNAK

**ORTZURI:** (*Laitizi*). Neri eskaiña, arotz izatea, gaur, gaur bete didak, Illeder.



**LAITIZ:** (*Arriturik*) Ni! enaun arotza, ni enaun Illeder, Laitiz naun ni, emazte maitea; Laitiz naun, erorren senar, peko apal ta jaureslea. (*Bere aurrean belaunikatu bite*).

**ORTZURI:** Laitiz! Laitiz! bai. Or zebillek bera, Minzorrotz lagun duela, ni emaztegaitu naiez. Nere senar laztan, itxastxoriak ere ezagun ta elaide ta maite auten ori (*Laitiz illeai tiraka, emakumeak garrasika; batzuek «gaixo au, diete, zororik zegon»; Mari Andresek besarkatu beza Ortizuri*) bioztxo bakar bat zeukat ta berau osorik dagokik; ta, Teles, ugiñ artean ito baintz ere, zorie-rrira ik eramango uen.

**LAITIZ:** (*Amurruz*). Nora sartu da Minzorrotz?

**MARI ANDRES:** Zertarako nai dezu?

**LAITIZ:** Txerrenez bada ere, nere aingeru eder au sendatu dezan, arren.

**EMAKUMEAK:** (*Izurik intzirika*). Ez Txerreni, Laitiz, deitu.

**ORTZURI:** Illeder, zergatik ez aiz mintza?

**LAITIZ:** (*Samur-samurrik*). Illeder erio den, ito zonan, erorren aurrean. Zergatik ez ni? Zorigaitz gogorra. (*Ortzuri kabel gaiñean*

*itxasora begira, emakume batzuek gonatik oratu bezaiote*): itzali bite eguzkia, gautu bekit eguna, biotzeko suak soi ik argitu ditzala nere begiak; emazte laztan au ezpekit, ordea, zoratu.

**ORTZURI:** (*Bitartean*). Itxasoa zein ederra dan, eztakusk? Mintza, Illeder.

**EMAKUMEAK:** (*Igesi doaztela*). Biragolaria!

**MINZORROTZ:** (*Laitizi*). Itza, itz? (*Emakumeak eraman bezate Ortzuri*).

**LAITIZ:** (*Zartadan*). Zer nai?

**MINZORROTZ:** Itza, itz?

**LAITIZ:** Azti, gauargi, sorgin naiz Txerrenen alaba: aizena aizela, emaion nere emazteari buruko argitasuna ta nik emango diñat nere ondasun guztia.

**MINZORROTZ:** (*Arbuioz*). Gutxi dek.

**LAITIZ:** Ontzi galduen uretara joan ta murgil egiñaz urre-langak aterako dizkiñat.

**MINZORROTZ:** Gutxi dek.

**LAITIZ:** Gutxi!

**MINZORROTZ:** Nere biotz au eztek urre-zillarrez aseten.

**MARI ANDRES:** (*Urrutitik*). Utziok orri, Laitiz.

**EMAKUMEAK:** (*Urrutitik*). Utziok orri,, Laitiz.

**MINZORROTZ:** Gorroto miñez baizik iñolaz ezin dikek bete. Ik agindu idan nerekin bizi izatea. Itza, itz?

**LAITIZ:** Baltzukoak arazi niauten.

**MINZORROTZ:** Entzun, Laitiz. Birago batez erakarri nuen arako ekaitz arrigarria.

**LAITIZ:** (*Izurik*). Nor aiz? nor aiz?

**MINZORROTZ:** (*Irrizko txera andiz*). Goizeon nik turutots ezta lagun dedala, oi dedan bezin gozaro, biragotxo batez ire emazte polit orren burua irakintxotan jarri ziat.

**LAITIZ:** (*Amurruzko sutan*). Aizena aizela, gaur den atzena, gaur.

**MINZORROTZ:** (*Gogor*). Neri zemaia! (*Laitizek oratu nai dio*). Geldi! (*Berriz irrizko txera andiz*). Ik, erorrek, orain asmatu bear dek nere txera onen ezaugarri agiriko ta samur bat.

**LAITIZ:** Sapuztu bear aut. (*Eldu nai dio*).

**MINZORROTZ:** Alaba kendu didak...

**LAITIZ:** Nik ez.

**MINZORROTZ:** Ta bi nere etsairi eman.

**LAITIZ:** Ezetz.

**MINZORROTZ:** Geroztik oro zebiltzak neregandik igesi.

**LAITIZ:** Ni ez. (*Oratu nai dio*).

**MINZORROTZ:** Ken, ken. (*Kabelean, belaun billoizen gaiñean belaunikatu ta lenengo atalean bezela besoak zabalik oskorora begira jarri bite*). Arren, zeruko Jauna; zintzurrean minbizi batek Laitiz, itxasgizon koldar legorzale au... (*Laitizek besondotik oratu ta jaurtiki beza Minzorrotz pekan beera itxasora*).

**EMAKUMEAK:** (*Alderaturik*). Biragoaren ordaiña. Jauna (*Oskororo begira*): zure Euskalerriko azken biragolari oni barkatu; Ortzuri gaixorari argitasuna ta ondoratu aiei eman betiko atsedena: arren.

**LAITIZ:** (*Urduri-urduri ibillita, noizean bein kabeletik itxasora begira egonta gero*). Orra Txerrenen alaba Aitarengana jesten. (*Emakumeak kabeletik beera begira intzirika*).

AGERTOIALA BERA

OPERAREN ATZENA